

## OBRAK, UDALETXEKO SARRERA BERRITZEKO

# Publikoarentzat, informazio zerbitzua jarriko dute Udaletxe sarreran

■ Hiruzpalau langilek egingo diote harrera jendeari, udaltzainen ondoan ■ Udaltzainen aldagelak eta duxak berritu egin dituzte ■ Rotulo guztiak ere berritu egingo dute ■ Bukatuta egon nahi luke hilabete barru.

UDALETXEA obratan dago. Bi aldaketa nagusi egin dituzte: **bat**) udaltzainen aldagelak eta bulegoak berritzea; eta **bi**) beheko pixuan harrera lekua jartzea. Bestalde, paretetan eta ate ondoetan joaten diren seinaleak ere berriak jarriko dituzte.

### INFORMAZIOA ESKATZEKO LEKUA

Udaletxera joaten garenean, bigarren pixuraino igotzen gara informazioa jasotzera. Laister, sarreran atendituko gaituzte. Bertatik bidaliko gaituzte bestelako zerbitzuetara, hirigintza, euskara...

Harrera leku honetara eta udaltzaingora ate beretik sartuko gara, hemendik aurrera. Horretarako, udaltzainen lehengoko lekua zabaldu egin behar izan dute pixka bat.


### UDALTZAINEN ALDAGELAK

Udaltzainen aldagelak eta duxak berritu egingo dituzte. Udaltzainek berak esan digutenez, "aldagelak txukundu premian zeuden eta duxak zer esanik ez". "Pentsa zazu zer izango dan, sute batetik etorri, zerri eginda, eta ur zirriza bat botatzen duen duxan sartu beharra".

Bestalde, informazio zerbitzua beheko pixura dakarritenez, aldaketa batzuk egin beharko dituzte: kristalezko atearak jarri bi zerbitzuak apartatzeko, udaltzain-buruaren gela egokitu, ate berria iriki...

### SARRERA BERRIA

Lehen bi ate egoten ziren irikita: nagusia eta udaltzai-



Goian: planoak, nola geratuko den bukatu eta gero; behean: jendea nondik sartuko den.

netakoa. Nagusia ixten zutenean udaltzainetakoa egoten zen zabalik. Orain udaltzainetako zaharra itxi egingo dute eta berria iriki (ikus argazkia).

Horrez gain, komunikatuta egongo dira udaltzainak, informazio zerbitzua eta sarrera nagusia.

### HILABETE INGURU BARRU, BUKATUTA

Udaletxeko zerbitzuak non dauden esaten duten seinaleak ere berritu egingo dituzte. Hau izango da azken lana. Arduradunak esan digutenez, "hilabete barru bukatua izango dala kalkulatu den. Udaletxe dotorea geldituko

zaigu".

Fatxada berri berria dauka eta argiak ere hala ditu. Orain egindako obra azkena izango da; ez dute besterik egiteko asmorik, "oraindik behintzat".

Obra hau 20.000.000 pta inguru kostatu da (120199,5 € inguru). □

## MENDIRIZ MENDI

# Orreaga inguruetara ibilaldia

MENDIRIZ Mendi Nafarroa eta Nafarroa Beherako mugan barrena ibiliko da abenduaren 16an. Auritz-Lindux (1.223 m)-Laurinaga (1.278 m) eta Luzaiden barrena egingo du mendi eskurtsioa. Paraje hori guztia, eta batez ere Orreaga ingurua, berez da oso polita. Eta Mendiriz Mendiren ustez, udazkenean Euskal Herrian bisitatu litekeen paraje ikusgarrienetakoa da, bere paisaje eta pagadi koloretsuekin.

Izena emateko: datorren astelehen, ostegun edo ostiralean 20:00etatik 21:00etara. Prezioa: 1.200 pta bazkideek eta 1.500 pta gainontzekoek.

Mendi ibilaldia Atsegindegitik aterako da goizeko 07:00etan. □

# Mus txapelketa, gaur Karabelen

BELKARA auzo elkarteak antolatuta, auzo elkarteko lokalean, arratsaldeko 15:30etan.

Bihar, igandea, Tute txapelketa izango da, leku eta ordu berean. Bukaera, berriz, irabazleei sariak banatuko zaizkie. □

# Baserriko produktuak salgai, Behemendiko azokan

BEHEMENDIKO azoka jarriko dute gaur Plaza Berrian. Azokan baserriarrek saltzen dituzte beren produktuak. Bertako sagarrak, menbriloak, pateak, ogia, ezti... denetik izango du aukeran inguruetan denak. Azoka goizetik eguerdiraino egoten da zabalik: 09:30-etatik 14:00etara. □

**Antziola-Motor**  
Zerbitzu Ofiziala

**Ikusi al duzu Mondeo berria?**

Antziola Motorren ikusi eta probatu egin dezakezu.

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

**Antziola-Motor**

- ▶ Kotxe berri eta aukerakoen salmenta.
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika.
- ▶ Aseguruen gestioa.
- ▶ Finantziarioak.
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu.

**Honako eskeintza hauek dauzkagu zuretzat:**

**mobila** : SIMENS M35i  
9.900 pta kontratuarekin.

**mobila** : PACK ACTIVA  
14.900 pta (Telefono guztietan 8.000 pta deietan)

**ITXASTELE S.L.** Telyco denda  
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

**Movistar Activa**  
Hartu eta hitzegin

⇒ 'Telefonica'ko banatzailea.

⇒ Movistar.

⇒ Zentralitak.

⇒ Faxak.

⇒ Telefonía mugikorra.

⇒ "Via digital", inalanbrikoak...

**ordenagailua:**

AMD 900  
15" Montorea  
56 Kbps Barruko Modema  
Soinu T. eta Altabozak

**48.900 Pts**

## Hernaniko Ehiza Txapelketa, abenduaren 16 eta 23an

■ Faisana, eperra eta oilagorra botako dira, Epelerrekan eta Uxuko errekan ■ Txantxangorrik antolatzen du ■ Izen-ematea zabalik dago.

HERNANIKO Ehiza Txapelketa igandean zortzi hasiko da. Ehiztariak Larre-Gaundik atera goizean eta Uxoko Errekan eta Epelerrekan ibiltzen dira eguarte osoan.

Aurretik, antolatzaileek eperrak eta faisanak askatzen dituzte -gutxi gora-behera apuntaten diren ehiztari bakoitzeko lau pieza). Eta horietaz gainera, oilagorra bota liteke. Oilagorra bota ezkerre, 105 puntu; eperra, 102 puntu; eta faisana, 100 puntu. Txapelketa bi egunetara jokatzeko da, eta bi egunetan puntu gehiena ateratzen dituen, hura txapeldun. Ehiza txakurrarekin izaten da.



Sagardogiako kideak, sagardo txapelketa ondorenean.

berri, urtarrilean egingo da, Txantxangorri.

**INGURUKO TXAPELKETA**  
Hernaniko txapelketako hiru

onene, inguruko sei herrietako txapelketa jokatu dute. Urnietarrak bai, fuere dabilta hor; baina, ez da oraindik txapelik Hernanira etorri. □

### OTAEGI TXAPELDUN

Joan den urtean, Otaegi izan zen txapelduna. Bi igandetan 10 pieza bota eta 1014 puntu atera zituen. Sari banaketa,

## Gazte Txokoa Ulia mendira, gaur

■ Egurdiko 12:00etan irtengo dira ■ Erropa ona eta bazkaria eramane.



Gazteak jolasean Gazte Txokoko futbolinean.

GAZTE Txokoa, abenduko programa egin dago. Asteleheneetik igandera bitarte egongo da irekita, eta 12-17 urte arteko gaztetxoentzat dira ekintzak.

### DATORREN ASTEKO EKINTZAK

| Eguna | Ekintza           |
|-------|-------------------|
| 11    | Zinea             |
| 12    | Eskalada *        |
| 13    | Irati tailera     |
|       | Txorimalo tailera |
| 14    | Futbolina         |
| 15    | Ordenagailuak     |
| 16    | Topagunea         |

\*Eskaladarako aurretik eman izena

### PELOTA

## Gipuzkoako Txapelketako partiduak gaur, kiroldegian

OSTEGUNEAN jokatu ziren Gipuzkoako txapelketako partidu batzuk eta gaur hiru jokatu dira arratsaldeko 16:15etan hasita. Aurrengo partidua Arregi eta Berrantes bikoteak jokatu du Usurbilgo Andazperen kontra, infantiletan. Ondoren, kadeteetan, Erdozio eta Zurutuzak Lizartzako San Estebanen kontra. Eta, azkenengoa, Jon Elizalde Añorgaren kontra jokatu du. Partiduotan ez da jokatzeko sailkapeneko goi posturik. □

**INTXASPE**  
ARRANDEGIA  
Antziola 5 - Tel. 943 330 365  
20120 HERNANI

**OIALUME BILTOKIA.**  
Igande eta jai egun guztietan dantzaldia  
19:30etatik aurrera  
OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

### PELOTA -KRONIKA TXAPELKETA-

## Zabala-Garmendia eta Intxauspe-Goiburu irabazle joan zen astean

■ Hauek dira emaitzak: Zabala-Garmendia 22, Alvarez-Arruti 6 eta Intxauspe-Goiburu 22, Pello-Alex 8.

KRONIKA Txapelketako lau partidu jokatu dira dagoeneko. Intxauspe-Goiburuk eta Zabala-Garmendiak.

Aurreko asteburuan erraz Asteburu honetan ez da irabazi zituzten beren partidu- izango partidurik. □

### FUTBOLA

## Jubenilek eta neskek Zubipen dituzte, gaur, partiduak

■ Jubenilek 16:30etan dute ■ Neskek, 18:30etan ■ Kadeteek eta infantilek ere gaur dituzte partiduak, kanpoan.

GAUR arratsaldean ere partiduak izango dira Zibipe futbol zelaian. Jubenilen Liga Nazionalean Hernani eta Añorgak borrokatuko dute 3 puntuen bila, lauterdietan hasita.

Bi ordu beranduago, Hernani-Luberri izango da. Hernaniko taldeak aurreko astean kolpe dezentea jaso

zuen, Gasteizen, liderraren kontra eta gaur, arantza ateratzera joango dira.

Kadeteek eta infantilek, berri, kanpoan jokatu dituzte asteburu honetako partiduak. Kadeteek Lasarten jokatu dute Texas-en kontra, goizeko 10:00etan. Infantilek, Zarautzen dute, 16:15etan. □

### ZINEA BITERIN

## 'Jeepers Creepers' eta 'Spy Kids'

■ Asteburu honetan ere bi pelikula botako dituzte Biterin. *Jeepers Creepers* beldurrezko filma, helduentzat (19:30/22:30) eta *Spy Kids* (17:00), gaztetxoentzat. Bihar ere betiko orduetan.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093  
►Udaltzaingoa: 943 333288  
►DYA: 943 464622  
►Autobusak 943 556662  
►Anbulatorioa: 943 557750  
►Jokalarari anonimoak 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

►Egunez: Chucla  
Kardaberaz 48  
☎ 943 551793  
►Gauetz: Chucla  
Kardaberaz 48  
☎ 943 551793

### IRAGARKI MERKEAK

■ Gazte bat behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko. Euskaraz dakiena. Interesatuak deitu:

658 750896 edo 943 364605 telefonora.

■ Neska bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Interesatuak deitu 19:00etatik 21:00etara telefono honetara:

943 33 09 27 (M. Jose)

**SKODA**  
AUTO  
Skoda Fabia Sedan. Egin ezazu amets.  
**MENABI**  
Txingurri pas. 26 - Herrera auzoa - DONOSTIA Tel. 943-40 42 43